

ELMARTEN


Bergarako Estekaria

Berrigara

TXIMISTAREN PARE

*Goitibehera lasterketa
zapatuan
Angiozarren*

OPEL




TALLERES OLA

Olabarren auzoa z/g.
Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46 / 47.
BERGARA.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn:
TAKOLO AUTOAK, S.L.
Araba Etorbidea, 3 (Eskatu edifizioa).
Tfnoak: 79 05 86

OPEL KONTZESIONARIO OFIZIALAK, HOBEAK

ZURE ETORKIZUNA EUSKARAZ




MAITASUNA

LANA

KULTURA

KOMUNIKAZIOA

AISIALDIA



ESKAINNTZA

EUSKALDUNTZE eta ALFABETATZE maila guztiak. EGA eta EGATik gorakoa.

Eskaintza berezia: Guraso, merkatari eta enpresei egokitutako taldeak.

ERRITMOAK

Egunero 2 ordu (iraila-ekaina).
Egunero 3 ordu (iraila-ekaina).
Egunero 5 ordu (iraila-otsaila edo otsaila-ekaina).
Astean bi egunean 2 ordu eta erdi (EGA).
Eskarien arabera, beste erritmo batzuk ere eskain daitezke. Galde ezazu!

16 urtetik gorakoentzat.

Bekatzte sistema eta diru laguntzak ditugu.

BULEGO ORDUTEGIA

Goizez: 08:30-12:30
Arratsaldez: 14:30-19:00

MATRIKULATZEN EPEA

Irailaren 1etik 17ra

UDAL

EUSKALTEGIAK

BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA

Zabalotegi, 13 • BERGARA • Tel.: 943 76 44 53 • Posta elektronikoa: berg.eusk@udal.gipuzkoa.net



Uda osteko zenbait gogoeta

Miguel Angel Alvarez / Irakaslea

Oporraldia amaitu berri dugu eta aurten izan dugun uda bero honek laister lagako gaitu. Proiektu berriei eusteko garaia izateaz gain, urtaro honetan bizi izandakoa errepasatzeko ere une aproposa dela uste dut, oso gai netik bada ere.

Euskal Herriko politika munduari gainbegirada bat eman ezker lehenbizi su-eten eta Lizarra-Garaziko Akordioaren urteurrena aipatu beharko nituzte, ez baitago dudarik oso eraginkorra izan dela hainbat arlotan; esaterako, Udal hauteskundeak burutu ondoren, nola osatu diren Udal batzorde berriak; hau da, akordio eta negoziazioen bidez iskanbiltasua suertatu diren urteak ahaztu nahian, hurrengo lau urteotarako herriko indar politiko botatuenean jardungo dute Udalaren zereginetan. Denon onerako izan dadin...

Beste ikuspuntu oso ezberdin batetik ikusita, aurtengo udan hainbat ikaslerentzat (unibertsitatean izan ezik) irailako azterketak kentzeak uda lasaiago eta paketsua ekarri du. Familia giroan ere igarriko zen. Lasaitasun gehiago, eztabaida gutxiago. Seguru nago. Hala eta guztiz, urte batzuk igaro beharko ditugu sistema berri honen aldekoak eta kontrakoak

ikus ditzagun. Hau guztia dela eta, Batxilergoetan inoiz baino lehenago hasi dira ikasturte honetako klaseak, San Martin baino lehen aizu! esan zidan lagun batek egun batean adarra jo nahian; duela ez urte asko hilaren amaieran hasten ginen eta. Ez da aldaketa makala.

Herriko giroari dagokionez, azkenengo urteotan bezala, agian gehiago, abuztuaren erdialdean desertua. Inor ez kalean; dendak, tabernak, zinea, tailerrak eta abar itxita. Joan zen asteko BERRIGARAN irakurri ahal izan genuen bezala, kanpotik etorritako turistek ez zuten non jan, ezta oroigarri edo errellenoak edo tos-

"Bazkaltzeko edo afaltzeko toki gutxi... Betikoa, baina harrigarriena kaleetan aparkaturik egon den auto kopurua. Aurreko urteotan baino askoz gehiago. Hau kontraesana! Jenderik ez baina autoak bai"

toiak erosi ere. Bazkaltzeko edo afaltzeko toki gutxi... Betikoa, baina, harrigarria izan da kaleetan aparkaturik egon den auto kopurua. Aurreko urteotan baino askoz gehiago. Hau kontraesana! Jenderik ez baina autoak bai. Auto hauen guztien jabeak etxean sartu ote? Ez dakit; Hego Euskal Herriko ibilgailuen matrikulazioa gora eta gora doa eten gabe azken urteotan. Irakurri dudanez, 1998an ia ehun mila auto gehiago matrikulatu ziren lau probintzietan eta guztira milioi laurdenetik gora dira.

Hego Euskal Herrian, ondorioz, bi biztanleko ibilgailu motordun bat dago. Datu hauek Bergaran aplikatzen baditugu, datu zehatzak jakin ez arren, 8.000 ibilgailu egokitzen zaizkigu. Hau guztia egia den frogatzerik ez daukat, baina auto kopurua gero eta handiagoa dela begibistan dago, eta progresio honekin jarraituko bagenu etor daitezkeen ondorioak ikaragarriak izan litezke: azpiegituren beharra, istripuen kopurua, kutsadura, eta abar luze bat. Non dago hazkunde honen muga?

Beno, lerro hauek aprobeztatuz ez nuke amaitu nahi San Martin jaiak ahalik eta ondoen igarotzeko esan gabe, udazken eta negu luzeen atarian baikaude.<

■ barruan



Ana Beroiz

Anbulatorioko erizaina

"65 urtetik gorakoen %62ak gripearan kontrako txertoa hartzea da helburua"

8.



Fernando Markina

Arku tiratzailea

"Bergaran jende asko dago arkuak daukana eta talde bat sortzea ondo legoke"

23.



Mariaje Ibañez

Baster dendakoa

"Lacroix disenatzailea dut gustuko eta, top modelen artean, Nieves Alvarez"

29.

zorion agurrak



Juan Chups eta Mari Karmen Barrenetxea
Irailaren 21ean zilarrezko ezteiak.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Ainhoa Calvo
Irailaren 23an
10 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Asier.



Alazne Laskurain
Irailaren 17an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Irati Fernandez
Irailaren 21ean
7 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



Jon Frias
Irailaren 18an
7 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta Nekane.



Nerea Gonzalez
Irailaren 17an
6 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Ane Ruiz de Egin
Irailaren 19an
9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Julen Urresti
Irailaren 20an
2 urte. Urte askotarako eta muxu handi bat! Etxekoak.



Iñaki Alzola
Irailaren 22an urtebetetzea.
Urte askotarako eta muxu bat! Miren.



Esti Askasibar
Irailaren 19an
16 urte.
Urte askotarako!
O.L.



Imanol Clemente
Irailaren 21ean
7 urte.
Urte askotarako!
Anaia eta gurasoak.



Iker Altogirre
Irailaren 20an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Libe Stutter
Irailaren 21ean
3 urte.
Urte askotarako!
Amama eta aitona.



Maruli "Montiel"
Irailaren 22an auskalo zenbat!
Urte askotarako!



Aitor Zabaleta
Irailaren 22an urtebete.
Urte askotarako!
Familia.



Nerea Najera
Irailaren 21ean
3 urte. Urte askotarako!
Etxekoak eta lagunak.



Aritz Oteiza
Irailaren 23an
6 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Andoni Gorrotzategi
Irailaren 23an
6 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Mikel Gorrotzategi
Irailaren 23an
6 urte. Urte askotarako!
Etxekoak.



Ana Madinabeitia
Irailaren 21ean
7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Asier Odriozola
Irailaren 18an
16 urte.
Urte askotarako!

Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Nahasi samar ibiliko da eguraldia asteburuan. Eguakitzean, estalita agertuko zaigu zerua eta euria egin dezake. Zapatuan, hobera egingo du eta urdinguneak ikus ahal izango dira. Domekan, okerrera egingo du; euria egin dezake.

Eguzkia

Domeka, irailak 19



Sortu: 08:01



Gerde: 20:19

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

Ilargiaren aldiak



Ilgora: irailak 17



Ilbete: irailak 25



Ilbehera: urriak 2



Ilberri: urriak 9

max min. euria

°C °C l/m²

Eguena 9	31	15	-
Eguakitza 10	34	15	-
Zapatua 11	33	15	0,2
Domeka 12	28	19	20,8
Astelehena 13	17	16	6
Martitzena 14	18	13	4,4

Farmaziak

Eguakitza 17:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Zapatua 18:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Domeka 19:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.

Astelehena 20:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.

Martitzena 21:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.

Eguaztena 22:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Eguena 23:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.

Ogia

Domeka 19: Ogizun.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	112
DYA	943 78 71 51
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 77
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 41
Anbulantzia	943 55 49 02
Udaltzaingoa	943 77 91 06
Ertzaintza	943 76 53 41
Suhiltzaileak	943 78 28 06
Angiozarko medikua	943 78 90 71
Antzuolako medikua	943 76 62 22
GARRAIOAK	
Euskotren	943 45 01 01
PESA	902 10 12 10
Taxiak	943 76 18 51
RENFE	943 28 35 01
UDALA	
Udaletxea	943 77 91 06
Kultur Etxea	943 77 91 59
Mizpirualde Egoitza	943 76 10 61
BESTELAKOAK	
Jardun	943 76 36 51
Postetxea	943 76 26 51

zozketak

BONO LOTO

Eguakitza 10

16-18-26-28-37-39 (osag.44/itz.6)

Astelehena 13

1-6-23-31-37-46 (osag 8/itz.4)

Martitzena 14

7-9-32-36-39-41 (osag.23/itz.1)

PRIMITIVA

Zapatua 11

11-20-23-32-40-45 (osag.25/itz.4)

Domeka 12 Saritzarra

20-21-27-28-38-44 (osag.40/itz.8)

ONCE

Eguakitza 10: 20.612 (139 serialak)

Astelehena 13: 20.522


Martitzena 14: 58.052

Datorren asteko alean,
IRAILAren 24a eta 30a
bitartekoan
zorion agurrak
argitaratuko ditugu.

URTEURRENA

Jose
Gonzalez Mateo

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailak 19,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Pedro
Ruiz Ruiz de Gauna

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailak 19,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Lolita Erdabide Etxaniz
Felix Muruamendarazen alarguna

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailak 19,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Kontxita
Aldekoa Olabarria

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailak 19,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Juliana Retolaza Aranzabal
Lorenzo Etxeberria Lazpiurren alarguna

Bergaran hil zen
1999ko irailaren 8an,
84 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

Eduardo
Castellano Martinez

Lehen urteurreneko meza
domekan, irailak 19,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.



*Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

ESKER ONA

Maria Asuncion
Mujika Barrenetxea-Arando

Bergaran hil zen
1999ko irailaren 6an,
89 urte zituela.



*Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.*

hildakoak

BERGARA
Jose Maria Alberdi Bengoa
Irailak 11, 66 urte

jaiotakoak

BERGARA
Maddi Arana Arzak
Irailak 2
Ibai Gonzalez Arruti
Irailak 5
Ioritz Ondarra Aranguren
Irailak 9

OHARRA

Eskelak, argitaratu
behar diren asteko
eguztenera arte
eskatu daitezke.
Beranduago
eskatzuz gero,
hurrengo astean
argitaratuko dira.

ANTZERKIA

► **La machina** taldearen "El dolor del tiempo" antzezlanaren gaur, eguakitzan, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

MUSIKA

► **Kaos etiliko eta Factoria 77** gaur gauerdian Plazan.

► **Bergarako Orfeoia eta Bilboko Orkestra Sinfonikoa** bihar, zapatua, 20:00etan Udal Pilotalekuan.

► **La Parranda** taldearekin dantzaldia bihar, zapatua, 23:00etan Fraiskozurin.

ERAKUSKETA

► **Margo lehiaketako lanen erakusketa** igandera arte zabalik Beart taldearen egoitzan (Bolu kalea, 49).

► **Oliver!** musikalaren argazki erakusketa astelehenetik aurrera Kultur Etxean.

► **Antton Arrillagaren margoak** Nahikari tabernan.

LEHIAKETAK

► **Batetik bestera kontaketa lehiaketa.** Hiru sail bereiztuko dira: bidaiaren kontaketa testimoniala, kontaketa literarioa eta bidaiaren argazkiak. Lanak irailaren amaierarako

Bertso jaialdia

Noiz: gaur, eguakitzan, 22:30etan
Non: Novedades aretoan.
Sarrerak: 800 pezeta aldezturik; 1.000 pezeta takilan

Jardun elkartearen eskutik bertso jaialdi bikaina izango da gaur gauean Novedades aretoan. Jardunek maila handiko bertsolariekin osatu du gaurko kartela: Andoni Egaña (1993 eta 97ko Euskal Herriko txapelak eskuratu zituen) eta Sebastian Lizaso (azpeitiarra 86an izan zen garaile) beteranoekin batera, Ainhoa Agirreazaldegi bergarra (21 urte), Aitor Mendiluze andoaindarra (23 urte) eta Xabier Silveira lesakarra (23 urte) gazteak arituko dira gaur bertsoan. Ainhoa Agirreazaldegi bigarren aldiz irabazi zuen Lizardi Saria joan zen irailaren 4an Zarautzen eta sasoi betean dagoela erakutsi nahi izango du gaur. Abendura bitartean Gipuzkoako taldekako txapelketan parte hartuko du Ainhoak Leintz bailarako taldearekin. Besteak beste, Jon Sarasua, Da-

nel Goikolea, Saioa Arando eta Ainhoa bera arituko dira elkarrekin aipatutako txapelketan.

Gaurko bertso jaialdian gai jartzaile lanetan Karlos Aizpurua oartzuarra arituko da. Aizpurua bertso eskoletan bertsolarietza irakasten dihardu, eta bertsolariak berak planteatutako gaiak heldu beharko diete gaur. Agurraren ondoren, gai ezberdinak plazaratuko ditu Karlosek. Bestalde, saioa hasi baino lehen Arrasateko Bertso Eskolako bost gaztetxok ere agurra abestuko dute. Sarrerak Kortazar, Pol-Pol eta Ariznoa tabernetan edo Etxepare liburdendan daude salgai. Era berean, saioa hasi baino orduerdi lehenago Novedadeseko takilan bertan eskuratu ahal izango dira.



Egaña, Ainhoa Agirreazaldegi eta Lizaso aurten ere izango dira; Sarasua ez.

aurkeztu beharko dira. Argibideak Oñatiko Gaztelekuan, 943 71 60 94.

► **Jokin Zaitegi XIII. Itzulpen Laburren Sariaketa.** Aurtengo gaia librea izango da eta lehiaketara munduko edozein hizkuntzatatik itzulitako

idazlanak aurkez daitezke. Testuaren luzera 15-30 orrialde bitartekoa izan beharko da eta lanak jasotzeko epea urriaren 29an bukatuko da. Argibide gehiago Arrasateko AED elkartean, 943 77 12 28 zenbakian.

► **Azken agurra gutun sari-**

keta. Idazlanek euskaraz beharko dute izan, estandarrean nahiz euskalkian. Idazkien testamentu edo behin-betiko agur gutunaren forma izatea hobetsiko da. Lanak (DIN A4 formatoan) eskuz edo makinez idatzita aurkez daitezke eta gehienez bi orrialdeko luzera

AGOITZ
Tapizdenda

Leizariako San Lorentzo 25
 BERGARA
 Tf.: 939 84 57 47

A
R
R
A
N
O


Taberna
 Kruz Gallastegi BERGARA

Deco-Textil
ZANGITU

Etxerako lantzeria
 Alfonbra nazionalak eta
 ekialdekoak
 Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
 ☎ 943 76 08 69

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi, txerri, bildots,
 untxi eta baserriko oilaskoak*

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

izango dute. Lanak urriaren 1era arte jasoko dira. Argibideak Ondarroako Udaleko Euskaraz Zerbitzuan. 94 613 43 44.

IKASTAROAK

► **Begirale ikastaroa** urritik maiatzera bitartean, asteburuetan. Matrikula: 30.000 peze-ta (35.000 Jarduneko bazkide ez direnentzat). Plaza mugatuak. Argibideak Jardunen, 943 76 08 19 zenbakian.

► **Bideo ikastaroa** irailaren 20tik azaroaren 4ra bitartean Kultur Etxean. 943 77 91 58.

DEIAK

► **Hegoamerikako haurrei** zuzendutako eskolako materiala jasoko da Correoseko bulegoan urriaren 5era arte.

► **Mendi irteera** Orduña-Lendoñora irailaren 26an. Irteera goizeko 7:00etan Frontoitik. Txartelak Pol-Polen.

► **Odol ateraldia** eguaztenezan, hilak 22, 18:30etan Seminarioko lokalean.

► **Nekazaritza** ekologikoaren V. azoka domekan, hilak 19, Zerainen.

OHARRAK

► **Xipizaro ludoteka.** Ikasturte berriari astelehenean, hilak 20, emango zaio hasiera

Osintxu zein Aranzadi Ikastoletako lokaletan. Izen-ematea bertan, astebarruan 17:15etatik 19:30etara eta zapatutan 10:00etatik 13:00era.

► **Musika Eskola.** Instrumento klaseak irailaren 20an hasiko dira. Orduetegiak Musika Eskolako sarreran.

JAIK

► **Sagardo eguna** Elgetan bihar, zapatua, Gaztetxeak antolatuta: 17:00etan kalejira trikitilariekin, orduerdi beranduago sagardo kupelak zabalduko dira eta 18:00etan tortila lehiaketa. Gauean, 23:00etan kale antzerkia Plazan eta ondoren Eider eta Oihanarekin erro-meria.

KINTADAK

► **1950ean jaiotako enafaria** irailaren 25ean Antxonijatetxean. Izen-ematea (1.000 pezetako depositoa) bertan.

► **1948an jaiotako enafaria** irailaren 25ean Txuringon. Joan-etorria egiteko autobusa izango da. Izen-ematea (6.000 peze-ta) Euskadiko Kutxan.

► **1925ean jaiotako bazkaria** urriaren 3an Torrekua asadorean. Izen-ematea (2.000 pezetako depositoa) jatetxean bertan. Argibideak 943 76 18 85 (Maximo Zangitu) zenbakian.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades

La novena puerta
Eguakitza: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Rugrats

Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

ARRASATE. Alai zinema

La amenaza fantasma
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga Celos

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztenua, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

La amenaza fantasma
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:45, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Matrix
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.
Los idiotas
Eguena, zine-kluba: 20:15.

AZKOITIA. Baztartxo Wild Wild West
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

OÑATI. Santana

Notting Hill
Zapatua: 19:30, 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

LA NOVENA PUERTA

Zuzendaria: Roman Polanski.
Aktoreak: Johnny Depp, Lena Olin, Emmanuelle Seigner.
Arturo Perez-Reverte idazlearen El club Dumas nobelan oinarritutako filmea egin du Roman Polanski zuzendari ezagunak. Dean Corso (Johnny Depp) liburu zahar-rrak bilatzeaz arduratzen da eta deabruzko liburuetan espezializaturik dagoen bibliofilo batek aginduta, liburu baten benetakotasuna frogatu beharko du. Baina tranpaz jositako bidea izango du tartean eta Corso liburuaren enigmak asmatzen joan beharko da.



RUGRATS

Zuzendaria: Norton Virgien eta Igor Kovalyov.
Marrakzi bizidunetako telesail arrakastatsuko pertsonaiak pantaila handian ikusteko aukera. Haurren ikuspuntutik egindako filme honetan, umorez, Rugrats familiaren gorabeherak kontatzen zaizkigu. Txikienek buruhauste ugari emango diete euren gurasoiei...

BERRIGARAK ez du gerta litekeen emanaldi aldaketan erantzukizunik.

Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz.
Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!
Zatoz eta informa zaitetz!

LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

Tf. 943 76 16 63

Osakidetzaren gripearen aurkako kanpaina irailaren 20tik urriaren 30era bitartean egingo da. Kanpaina 65 urtetik gorakoei eta hainbat patologia dituzten adin horretatik beherakoei ere zuzenduta dago. Gipuzkoan 87.500 txerto emango direla kalkulatzen da. Ana Beroiz anbulatorioko erizaina du gu kanpainaren arduraduna Bergaran.

ANA BEROIZ

Anbulatorioko erizaina

“Gripearen kontrako txertoa efektiboa dela frogatu da azken urteotan”



Ana Beroiz gripearen aurkako kanpainaren arduraduna da anbulatorioan.

G. Astelehenean martxan jarriko da kanpaina.

E. Horrela da, bai. 65 urtetik gorakoek medikuaren bolanterik gabe, Osakidetza txartelarekin bakarrik etor daitezke; eta bronkitisa, kardiopatia, diabetesa edota giltzurrunetako gutxiegitasuna sufritzen duten 65 urtetik, beherakoek, berriz, medikuaren bolantea ekarri behar dute. Txertoa anbulatorioan jasotzeko, 10:00etatik 12:30etara bitartean etorri beharko dira 8. kontsultara, eta ez dago zita eskatu beharrik. Horrez gain, urriaren 8an Kiroldegian (10:00etatik 11:00etara) eta urriaren 15ean Osintxuko kontsultorioan (10:00etatik 11:30etara) txertoa hartzeko aukera egongo da.

G. Zer nolako erantzuna jasotzea espero duzue?

E. Urtetik urtera antzera mantentzen da kopurua. Gure helburua 65 urtetik gorakoen artean %62ra heletzea da eta kopuru horren inguruan ibiltzen gara urtero. Jendea txertoa hartzera animatu nahi nuke efektiboa dela frogatu delako. Birusen kontra babestea beharrezkoa da defentsak baxuagoak dituztenentzat eta kanpaina, hain zuzen ere, beraiei zuzenduta dago. Katarro baten konplikazioak ere ezberdinak dira txertoa hartuz gero.

G. Txertoak kalte egiten diela esaten duen jendea ere bada.

E. Txerto guztiak erreakzioak (besoko mina, ondoeza eta beste hainbat) sortarazten dituzte eta jende batek okerrago jasaten ditu erreakzio horiek. Medikuntza ez da hutsik gabea eta bati kalte egiten dionak beste bati ez dio eragiten. Or-

“Kanpaina, defentsa eskasia dutenei zuzenduta dago eta, 65 urtetik gorakoen artean %62ak txertoa hartzea da helburua”

ganismo bakoitza ezberdina da, baina birusen kontra babesteko txertoa hartzea onak dela uste dut. Horrek ez du esan nahi beste birus bategatik katarroa hartuko ez dutenik baina, agian, hiru katarro izan beharrean bakararra jasango dute.

G. Noiz agertzen dira gripe kasu gehienak?

E. Udazkenaren hasieran eta udaberriaren gehienbat, tenperatura aldaketak handiak izaten direnean normalean. Zaharrak ez dira aldaketa horietara errez egokitzen eta orduan agertzen da gripea. Sintomak sukar altua, zefalea, nekea, rinorrea, eztarriko mina eta eztula lirakeke; eta esan behar da gripea hartutakoan ez dela komeni antibiotikoak hartzea, medikuak esanda ez bada. Jendeak automedikatzeko ohitura dauka baina atsedena, dieta sana eta sukarra jaisteko antitermikoak hartzea izaten da soluziorik onena.

G. Laz gripe kasu asko egon ziren?

E. Bai, nahiko kasu eman ziren eta, gainera, hainbat gaisok sintoma guztiak izan zituzten. Haurre ere nahiko eragin zien eta, orokorrean, Gipuzkoan eragin dezentea izan zuen gripeak. Txertoa kanpaina bakoitzean hartzea komeni izaten da; birusak urtetik urtera aldatuz joaten direla kontutan hartu behar da.

G. Bukatzeko, txertoa jaso nahi duen gainontzeko jendeak zer egin behar du?

E. Kanpaina goian aipatutako arrisku taldeei zuzenduta dago bakarrik. Jende horrentzat txertoa hartzea doanekoa da, baina txertoa hartu nahi duten gainontzekoek txertoa farmazietan erosi (500 pezeta inguru balio du) behar dute eta ondoren zentrura etorri daitezke.<

Domekan, hilak 26, inauguratuko da Angiozarko Arbiaska frontoia

Pilota partiduak eta herri kirolen jaialdia goizez eta arratsaldez


Datorren domekan, hilak 26, inauguratuko da Angiozarko Arbiaska frontoia. Inaugurazio ekitaldian Victoriano Gallastegi Bergarako alkatea, Mila Elortza Angiozarko auzo alkatea eta Nere Amaia Zabala kirol zinegotzia izango dira, besteak beste.



Frontoia estali, harmailak eta aldagelak egin eta erabat berriztu da. 10 koadro ditu.

Pilotalekua goizeko 11:45etan inauguratuko da eta eguerdiko 12:00etan pilota partiduak jokatuko dira. Lehenengo, profesional izandako bi bikote ariko dira elkarren aurka: Ansola eta Salbidea, Gallastegi eta Gorostizaren kontra. Ondoren, Aspe enpresako lau pilotarik jokatuko dute: Esain eta Goñi III.ak, Olaizola I.a eta Auskinen kontra. Arratsalde partean, bestalde, herri kirolen jaialdia izango da

Nikolas Agirrezabal zenaren omenez. 17:30etan hasiko da jaialdia eta aizkolariak, harrijasotzaileak, trontzolariak, dantzariak,



bertsolariak eta trikitilariak izango dira. Aizkolariak, honako hauek: Harria II.a, Aierbe, Arrospide, Míndegia, Ugarteburu eta Laskurain. Harrijasotzaileak: Zelai, Aritzeta, Goenatxo, Eloorri

sukorta, Iñaki Eguren eta Koste. Trontzolariak: Igor eta Fernando, Carlos eta Germanen aurka. Bestalde, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariak eta Gezalaga anai-arreba trikitilariak ere izango dira.

BIDE LUZEA

Angiozarko frontoia berrizteko lanen aurrekontua 63 milioi pezetakoa izan da. Obrak hasieran uste baino gehiago iraun dute, tartean hainbat ezuste gertatu direlako. Iazko otsailean adjudikatu zitzaizkion lanak Berri

S.A. enpresari. Honnek, bestalde, Etxabide S.L. enpresari subkontratatu zizkion lanak. Apirilean hasi zituzten obrak, baina uztaillean gelditu egin ziren eta horrela egon ziren urte amaierara arte. Etxabide S.L. enpresak erakutsitako ardurabekeria dela eta, kontratua bertan behera laga eta zigor espedientea ireki zion Udalak enpresa honi. Bes-

talde, iazko azaroan lanak berriz adjudikatzeko baldintza plegu berriak onartu zituen Udaltzarak, eta Sukia eta Moel enpresek sortutako aldi baterako enpresa batasunari adjudikatu zizkion lanak 58 milioi pezetan. Frontoiko argientzako pasarella egiteko beste 3 milioi pezeta bideratu ziren. Aurtengo otsail inguruan hasi eta oraintsu amaitu dituzte lanok behin betikoz.

Pilotalekua estali, aldagela eta harmailak egin, eta paretak berritu eta pintatu egin dira.


IRURAK PINTURAK O.E.

ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA

AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32



GRUPO ZURICH
ASEGURUAK



GABILONDO
AGENTZIA
INMOBILIARIA

Gurutzne Elgoro Gabilondo Barrenkalea 44, behea
Tf./Faxa: 943 76 57 85



San Antonabat ermita ingurutik Mekolalde arteko lehen tunela, Gallastegikoa, urriaren 15ean hasiko dira zulatzen.

A-1 autopistako lehen tunela zulatzeke prestaketa lanetan

Urriaren erdian hasiko dira Gallastegikoa zulatzen

Eibar eta Gasteiz lotuko dituen A-1 autopista egiteko hiru hilabete lanean eman ondoren, lehen tunela zulatzeke prestaketa lanetan ari dira une honetan.

Bergara hegoaldea eta Sagar Erreka arteko 5 kilometroetan bi tunel egingo dira: Gallastegikoa (1.200 metro) eta Lezarrikoa (2.400 metro). Urriaren 15ean hasiko dira Gallastegiko tunela zulatzen. Jumbo izeneko makina zulazaila eta go-

ma-2 lehergailua erabiliko dira tunelak zulatzeke. Guztira mila tona goma-2 lehergailu erabiliko dira Gallastegiko eta Lezarriko tunelak zulatzeke. "Tunela lan zikina da berez, zulatu eta leherketak eragiteaz gain, tunela garbitu egin behar delako" esan digu obraren arduradunetako batek. Alde batetik eta bestetik une berean zulatzen hasiko dira eta zortzi bat hilabete beharko dituzte bat egiteko.

Lezarriko tunela zulatzen ere aurki hasiko dira.

Esan dezagun, bestalde, Bergara hegoaldea eta Sagar Erreka arteko 5 kilometroko zatian, beste bi biadukto eraikiko dituztela. Lehenengo, Ondartza baserriaren parean, Elgetarako biderearen gainetik joango da eta Gallastegiko tunelera arte luzatuko da. Lezarriko tunelaren bestaldean, Sagar Errekan, eraikiko da beste biaduktoa.

Patricia Urrutia Aranzadi Ikastolako zuzendari berria

Patricia Urrutia, 28 urteko Ekonomia eta Enpresa lizentziatu bergararra da Aranzadi Ikastolako zuzendari berria, Iñazio Arregiren orde. Iñazio Arregik uztailan laga zuen zuzendari kargua, Partaide enpresara joateko. Iñazio 48 urte ditu eta 23 eman ditu Aranzadi Ikastolan azken 20 urteak zuzendari postuan.

Aurrerantzean, pedagogia arloaz Gurutze Arregi arduratuko da. Bestalde, hezkuntzako etapa bakoitzeko arduradun bat izango da. Haur hezkuntzako Beña Zubizarreta izango da, lehen hezkuntzako Gurutze Arregi eta bigarren hezkuntzako Izaskun Labaien. Bestalde, Andoni Etxeberria informazio eta komunikazio arloaz arduratuko da eta, horretaz gain, zuzendaritza taldearen lezuntzaile gisa ariko da.



GOXO-TOKI
Bergara
Telefonoa 3. 71. 943 76 12 35
Matrikulegi 34. 71. 943 76 23 37

KORTA-ZAR
Txokolategia
Pintxo eta ogibarteko
espezialitatea

Barrenkalea 16 ☎ 943 76 20 62

KONDE

Burdinate 1
☎ 943 76 02 57

Eragindako sute bategatik hainbat kalte Murinondon

Joan zen eguakitzean, 19:00 inguruan, sute txiki bat izan zen Murinondo auzoan, San Blas galdarategiaren atzealdean. Sutea zerk edo nork eragin zuen jakiterik ez dugu izan; baina, antza denez norbaitek eraginda izan zen. Suhiltzaileek sua berehala amatatu zuten.

Hala ere, lursail txiki bat, telefono poste bat eta Murinondo baserriko dozena bat fruta arbola erre ziren. "Eskerrak suhiltzaileak eta ertzainak bizkor ibili ziren, bestela auzoa telefono barik geratu eta kalteak handiagoak izango ziren" esan dio Berrigarari Murinondo baserriko Arantza Maiztegik.



Murinondo baserriko lursailaren zati bat kiskalita geratu zen.

Luis Etxeberria Pabon Burgosetik Martutenera

Espainiako Barne

Ministerioak iragarri bezala, kartzelaz kartzela presoak mugitzen hasi dira dagoeneko. Luis Etxeberria Pabon Burgosetik Martutenera ekarri dute (joan zen asteko alean, Avilatik Logroñora mugituko zutela iragarri genizuen baina informazioa okerra zen). Bestalde, Jose Mari Etxaniz Puerto de Santa Mariatik Tópasera (Salamanca) eroan dute eta Iñaki Arietaleanizbeaskoa "Bixkai" eguenean ekartzekoa zuten Ourensetik Martutenera, baina eguaztenean berria ziurtatu barik zegoen oraindik.



ARGAZKI KAMERA

Aitor Rementeria eta Martin de Pedrorentzat



Kiñu
Berrigara

BERRIGARAN jaso ditugun oporretan ateratako argazkien egileen artean, Kiñu argazki dendak oparitutako kamera ederra zozketatu dugu eta **Aitor Rementeria eta Martin De Pedrori** egokitu zaie. Zorionak bie BERRIGARA eta Kiñuren izenean eta zortzerik izan ez duzuenoi eskerririk asko zuen argazkiak bidali dituzuelako. Argazkian, sarituak Kiñuko Aitziber Aretxagarekin.

Berrigara

379 zenbakia.
1999ko irailaren 17a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Argitaratzailea: **JARDUN Elkarte**

Zuzendaria:
Eneko Azkarate.

Erredakzioa:
Eneko Azkarate, Edu Mendibil.
Maketazioa: Inaki Iturbe.
Publizitatea: Uxue Zabaleta.
Harpidetza: Itziar Kortabarria.

Testuen zuzenketa:
Estepan Plazaola, Alex Labaien,
Maripi Laskurain.

Erredakzio kontseilua:
Miguel Angel Elkorobereizibar,
Alex Labaien, Gorka Elortza.

Komikiak: Bittor Rodriguez,
Gorka Ortega & Jon Alvarez,
Alex Ugaldede, Unai Azkarate.

Kolaboratzaileak:
Juan Martin Elexpuru, Josu Okina,
Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.

Sanaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia:
Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko irudia: Berrigara.

Tirada: 5.200 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen eta
iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako
Udala



Gipuzkoako
Foru
Aldundia



Eusko
Jaurlaritzako
Kultura saila

gutunak

Gutunak Berrigarara helarazteko: Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara.
Faxez: 943 76 29 77. Posta elektronikoz: berrigara@topagunea.com. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

PLAZAKO TAULATUA

Onerako ala txarrerako, jaietan jendea tabernetan edo hauen inguruan biltzen da eta, normalean, jendea dagoen tokietara hurbiltzeko ohitura daukagunez, tabernarik ez dagoen tokietan ez da jenderik biltzen. Lehen, sasoi batean, ez zen horrela, lehen kalean ibiltzen zen jendea, musika kalean zegoelako. Orain, berriaz, tabernetan sekulako musika aparatuak daude eta moda-modako musika, irratia formuletako kantu entzutenak, ipintzen dituzte.

Kontua da San Martin plazan ez dagoela tabernarik eta jaietan jendea bertan ez dela biltzen, logikoa denez, tabernarik ez dagoelako. Taberna batetik bestera joateko bakarrik zeharkatzen du jendeak San Martin plaza.

Hau horrela izanda ere, jaiak gerturatzen diren bakoitzean sekulako taulatua jartzen dute San Martin plazan, dantzaldietarako-eta. Baina, jakina, tabernarik ez

dagoenez, ez da jenderik biltzen eta, ondorioz, dantzaldietan lau katu baino ez dira egoten. Joan zen larunbatean patetikoak zen Nuetra America taldeko kubatar martxosoak gerriari alde batera eta bestera astintzen ikustea, plazan bospasei bikote bakarrik zeudenean, eta hauek, noski, geldi-geldi gora (taulatura) begira. Zer pentsatuko zuten kubatar alai haiek. Betikoa, euskaldunak hotzak garela...

Ohiturak aldatuz doaz eta jai egitaraua prestatzen dutenek aldaketak kontuan hartu beharko lituzkete, ekitaldiak, tokiak, orduak eta abar jendearen beharretara egokitzeko. Bestela, alperrik dabilta.

Jesus Garcia

tira biraka: alex ugaldede



■ atrebentzia ezpada

Urtea bete da Lizarra-Garaziko Akordioa sinatu zanetik. Zer baloraziño egingo ziñuke?



Elena Lizasoain

Ona, Akordiuaren aldekoa naizelako. Bake prozesua aurrera eruateko biharrezkoa da. Euskal Herriarendako lan inportantia egitten dau, dudarik ez.



Benito Castillejo

Nik oso ondo ikusten dot. Penia da alderdi guztiak ez egotia hor baiña lan interesgarria egitten dau. Kritikak jaso arren, aurrera egin bihar dabe.




Ana Mendinueta

Zeozetarako balio biharko leuke. Bake prozesuak aurrera egiteko tresna egokixa da Akordiu, eta kontran darenak beti kontran egon bihar die.



Edurne Agirrebeña

Balio bihar leuke baiña ez dakit betikuen partetik gogo handirik dagoen. Gobienuak gauza gutxi egin dau orain arte behintzat.



Antonio Fernandez

Gauza gutxirako balio izan dau. Prozesua geldu dago eta gauzak asko aldatu behar die, batez be PPren jarria. Bestela, gaizki goiaz.



Jesus Arriaran

Ez da asko aurreratu, gobernu zentralak gogo gutxi daukalako. Akordiuak aurrera egin bihar dau, biharrezkoa dalako.

■ bai, esan!



Gertaerak salatu edo txalotzeko: 943 76 03 97.
Identifikazioa beharrezkoa.

TABERNARIAK JAI GIROA ALAITU NAHIAN

Migel Azkaratek deitu digu aste honetan herriko erdialdeko tabernariak San Martin jaietan hainbat musika emanaldi antolatzeke egindako lana goresteke. Eskertze-koa da, Migelen esanetan, tabernariak kasu honetan herriko jai giroa pizteke egindako ahalegina.

Era honetako saiakerak urtean zehar ere bulztatu beharko lituzketela uste du; jaietan ez ezik, neguko denboraldiko astebukaeretan eta uda partean, gau giroa pizteke egokiak direlako. Kallean, eta baita tabernetan ere, kultur jarduera gehiago antolatzea gonbidatu nahi ditu Migelek herriko tabernariak eta Udala.

Trikiti eskola



Irakasleak:

Panderoa: Aitziber Gezalaga
Soinua: Xabier Solano eta Aitor Saizar

Noiz:

urritik ekainera

Non:

kartzela zaharrean

Egunak:

Panderoa: Astelehen eta eguakitzetan, 16etatik 21etara
Soinua: astelehenetan, 17etatik 21etara
Eguazten eta zapatuetan, 9etatik 14etara

Prezioa:

Panderoa: 1.900 PTA hilean
Soinua: 2.650 PTA hilean

Izena emateko azken eguna:
irailaren 27a

■ adituen esanetan

Ibilgailuen araudi berria

Joan zen uztailaren 27tik indarrean dago ibilgailuen araudi berria eta arriskuaz ohar-tarazteko triangelu seinaleak zeresan ugari eman du. Araudi berriaren arabera, turismo gidariak ordezko bonbillak, aipatutako triangela eta ordezko errobera eta beharrezko erramintak eraman beharko dituzte.

Istripuak eta aberiak seinalizatzeko triangeluarekin polemika piztu da: alde batek, Madrileko Trafiko Zuzendaritzak kotxe guztiei exijituko zaiela

esan du eta Jaurilaritzak, aldiz, joan den uztailaren 27tik (araudi berria indarrean jarri zenetik) aurrera matrikulatutako kotxeen kasuan beharrezkoa dela bakarrik. Bereizketa hori ez da oso logikoa eta normalena irizpide bakarra egotea litzateke. Dena den, gidariei aipatutako triangela eramatea gomen-datuko nieke, segurtasun aldetik tresna egokia delako eta, bestetik, Euskal Autonomi Erkidegotik kanpo seinale bariak irtezez gero isuna jartzeko arriskua dagoelako. Bi triangela eraman behar



ALFONSO ALONSO

Udaltzainburua

"Araudian jasotzen denez, datorren urteko urtarrilerako ziklomotore guztiak matrikulatuta egon beharko dira"

dira, aberia edo istripu kasuan bata kotxe aurrean eta bestea atzean jartzeko. Bakoitzak 1.200 pezeta inguru bali du eta kotxe tailetan eta hainbat dendatan eros daitezke.

Bestalde, araudian jasotzen denez, datorren urteko urtarrilerako ziklomotore guztiak (50 cc.tik beherakoak) matrikulatu egin beharko dira. Eskaerak irailaren bukaerara arte Udaletxean egin daitezke. Hortik aurrera interesatuek Donostiara joan beharko dute. 2.575 pezetako tasak ordaintzeaz gain, urteko inpuettoa 1.105 pezetakoa da ziklomotoreen kasuan eta 3.150 pezetakoa "cuatriciclos" deituriko kotxe txikien kasuan. Beste nobedade-etako bat zera da: aurrerantzean ziklomotorea gidatzeko azterketa teorikoa gaintitu beharko dela lizentzia eskuratu ahal izateko.

Azkenik, babes kaskoa beti jantzita eraman beharko dute gidariak eta ziklomotore berean bi lagun joan ahal izateko horretarako homologatuta egon beharko da ziklomotorea.<



Ziklomotoreak matrikulatzeko eskaerak Udaletxean egin ahal izango dira irailean.

■ bergarako gordailutik

ERRUKI KUTXA

Imanol Sorondo

Gizaki batzuk gari kutxak miserikordi kutxak izenekoak, laga zituzten berriaren herrietan, eskasi garaietan premi garaietan eta beharrean aurkitzen zirenei laguntzeko; batek 100 anega gari laga zituen, besteak 200, bakoitzak zezakeenaren arabera. Calahorra eta La Calzadako go-tzaia zen Juan Bernal eta Diaz de Lucok 1554. urtean aitortzen zuten idatzi batean zeinen obra on eta egokiak ziren behartsuentzako eta horrelakoak egiteko eskatu zuten Jesuskristo gure Jaunaren zerbitzurako. Orain Juan gotzaiak, esandako pertsona horien oroimen ona galdu ez zedin, beraien ondasunak behar-suekin banatu baitzituzten, idatzitako reglamentu batzuetan jasotzea erabaki zuten. Erruki kutxak Elizako lana ziren eta bere esku zeuden, baina udaletxeek laguntzen zuten.



Bergaran eta Antzuolan honela bideratzen zen: Erruki kutxa horietan beti zegoen gari kopuru handi bat. Eskasi garai zetorrenean edo eskasia zeukanari Kutxa horretatik atera eta behar zena ematen zen edo zitzaion. Kontua da garia hartzen zuenak bazeukala erantzule bat eta, gero, bai batak edo, honen izenean, bai besteak ordaindu egiten zuela berriz ere garitan. Irailaren 8rako, Amabirjinaren egunerako. Horrela beti zegoen bete miserikordi kutxa.

Antzuolan premian aurkitzen ziren 38 pertsonari eman zitzaientz garia 1689. urtean, anega batetik laura, premiaren arabera. Eta bere azkeneko kutxa kontuak 1807. urtekoak dira.<



Euskal derbya Bergaran

Argazkikoak izarren ligan aritu ez arren, urtero **emozioz beteriko partidua** jokatzen dute elkarrekin. Koadrila berekoak izanik, alde batean **Athleticeko jarraitzaileak** eta bestean **Realekoak**. Klasiko bihurtzen ari den partidu honetan oraingoan Athleticcekoak nagusitu ziren; arauzko denbora hiruak berdinketarekin amaitu zen baina luzapenean lehoiek garaipena eskuratu zuten urrezko golari esker. Urtetan derbya errealezaleek irabazi badute ere, badirudi aurtengoan Athleticcekoek aurrendenboraldi hobia burutu dutela. Kontua da Realekoei partidua galtzeagatik **poteoa** eta, azken ligan Reala Athleticen atzeagatik geratzeagatik, ondorengo **afaria** ordaintzea tokatu zitzaiera. Espero dezagun Kraussek bere haserrea ez azaltzea Matxiategiko errealezaleekin....



Zirko Txipia, ikuskizun handia

Haur eta nagusiek primeran pasatu zuten **Zirko Txipia** antzerki taldeak eguazten arratsaldean eskainitako "Txalo-zirkus" ikuskizunarekin. Hasiera-hasieratik ikusleen konplizitatea bereganatu zuen pailazo bikote protagonistak eta haurrei zein hauen gurasoei ikuskizunean parte hartzea tokatu zitzaizen behin baino gehiagotan. Haurrak liluratuta geratu ziren malabarrekin egindako jolasekin eta bestelako trukoekin eta interes handiz jarraitu zuten ikuskizun osoa. Horrelakotan ez dago aspertzetik...



99-00 IKASTURTEA

INGELES FRANTSESA ALEMANA


MATRIKULA ZABALIK

Ikasturtearen hasiera: urriaren 4an.

- Talde txikiak.
- Maila guztiak.
- Adin guztiak: gazte, heldu eta...
- **UMEENTZAKO HASIERA IKASTAROAK (6 URTETIK AURRERA).**
- Azterketa ofizialen prestakuntza.
- Hiru hilabeteko ikastaro trinkoak.
- Goizez, eguerdiz eta arratsaldez.




INFORMAZIOA: Bergarako UNED. San Martin plaza z/g (3. pisua) ☎ 943 76 06 87. Bulego ordutegia: 10:30-13:00 eta 16:30-19:30



ANTZUOLAN. HERRI BARRUAN

8 ETXEBIZITZA FAMILIABAKAR
ADOSATUAK, LORATEGIAREKIN
LASTER ERAIKIKO DIRA

INFORMAZIOA ETA ERRESERBAK: 943 76 90 00



Primerako jai giroa San Martinetan

Joan zen zapatuan hasi ziren San Martin jaiak Nuestra America taldearen emanaldiarekin eta, San Martin egunean eta bezperan bezala, jai giroa nagusitu zen. Asteburu honetan ere hala izatea espero dugu, ekitaldi ugari iragarri baitira.

Nuestra America taldeko kubarrek saltsa, merengea eta Karibeko erritmoak ekarri zituzten zapatuan. Gutxi izan ziren, ordea, erritmo latinoekin dantzan egin zutenak.



Beart-ek domekan antolatutako pintura lehiaketan Iñazio Treku debarrek, azpiko argazkian, eroan zuen lehen saria (80.000 PTA eta trofeoa) nagusien mailan. 23 urtez azpikoetan, Usoa Mendikute bergararrak (30.000 PTA eta trofeoa).



Barazki, fruitu, lora eta gazta lehiaketak herritar asko erakarriko du aurtien ere San Martin plazan jarriko diren postuak ikustera. Gainera, Bedelkarreko harakinek emandako odolosteak dastatu ahal izango dira.



Seminarioan herri afarirako txekorra burduntzian erreko da zapatuan guztian zehar.

Eta astebukaeran...

Eguakitza 17

19:00: Bikoteen Dantza Suelto XV. Txapelketa, Moises Azpiazuren oroimenez, Udal Pilotalekuan.

19:00: Blitz-eko Match lehiaketa (xakea), Zabalotegiko dorrean.

22:30: Bertso jaialdia Jardun elkarteak antolatua, Novedades aretoan. Bertsolariak: Ainhoa Agirreazaldegia, Aitor Mendiluze, Andoni Egaña, Sebastian Lizaso eta Xabier Silveira. Gai jartzailea: Karlos Aizpurua.

24:00: Rock kontzertua Kaos Etiliko eta Factoria 77 taldeen San Martin plazan.



■ Burning, Credence edota Animals taldeen bertsoiak ez dira faltako Factoria 77 taldearen emanaldian.

Zapatua 18

09:30: Barazki, fruitu, lora eta gazta lehiaketa San Martin plazan.

10:00: Goizez eta arratsaldez, xake jaialdia, eskoletakoa, jubeniletakoa eta unibertsitate mailakoa, Miguel Altuna berrian.

11:00: IX. San Martin txapelketa plater tiraketa, antzinako abankargazko armenkin, Gorkako kantina inguruan.

12:00: Irrati kontaktuen lehiaketa, 24 orduz, domekako 12ak arte, Surra Irratizaleen elkarteak antolatua.

12:30: Bergarako odolosteak dastatzea, Bedelkarrek antolatua. Jose Jabier Igarza, Sebastian Imaz, Jabier Lazpiur (Altzeta), Jose Luis Leturia, Jon Leturia, Luis Mari Retolaza, Pello Urzelai eta Jose Manuel Zurutuza harakinek emango dute prestatuko den odolostea.

Egunean zehar txekorra burduntzian erreko da Seminarioko patioan, Bedelkarren laguntzarekin. Bestalde, ardo eta garagardo dastaketa izango da eta Xafre eta Zaharra trikitilariak alaituko dute eguna eta herri afaria.

16:00: Euskal Herriko 3. Gaiti-behera liga. Asentziotik Angiozarrera jaitsiera.

16:00: XXXIV. San Martin Txirindulari Lehiaketa 23 urtez azpikoentzat, Ibargarai hiribidetik irtenda. Lokatza Ziklismo Eskolak antolatua.

19:30: X. San Martin Herri Krosa herriko kaleetatik zehar, San Martin plazatik irtenda.

20:00: Bergarako Orfeoiaren 75. urteurrenoko ospakizunen bukaerako kontzertua, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin batera, Udal Pilotalekuan.

Egitaraua: "Opus I obertura". Juan Crisostomo Arriaga "Pastoral". Juan Crisostomo Arriaga "Zerua goian ta lurra bean". J. Egiguren (Hitzak: Gabriel Aresti)

"Stabat Mater". Miguel Gonzalez Bastida Zuzendaria: Juan Jose Mena

21:30: Herri Afaria: burduntzian erretako txekor-jana. (Txartelak salgai jarriko dira Bedelkarreko harategietan).

23:00: La Parranda taldearekin dantzaldia Fraiskozuri plazan.

Domeka 19

10:00: Goizez eta arratsaldez, Nazioarteko Xake torneo irekia Miguel Altuna berrian.

Karidadeko alabei agur

Zapatuan omenaldi bazkaria eskaini zitzaien

Aspaldi, 1858ko abuztuaren 11n Karidadeko bost Alaba destina-tu zituzten Bergarara. Garai har-tako "Casa de la Beneficiencia" delako-an umezurtzak eta zaharrak jasotzen ziren. Orduetik Karidadeko Alabak gaur-ko Mizpirualde Erresidentziako edifi-zioan izan dira lanean eta edifizioak izan duen eboluzioaren lekukoak izan dira. Elizak mantentzen zuen edifizioan 1914. urtean tuberkulosoek zuzenduta-ko kontsultategia zabaldu zen, eta han-dik hamar urtera urjentziak ere atendi-tzen ziren. Beranduago amaetxea, an-bulatorioa eta umeen eskola izan zi-tuen edifizioak eta 1982ko ekainean, berritze lanen ondoren, Mizpirualde Erresidentzia inauguratu zen. Guztira, Karidadeko Alabak 141 urtez haurrekin eta zaharrekin lanean izan dira, eta orain alde egiteko ordua heldu zaie.

Egindako lan bikaina eskertzeko omenaldia eskaini zitzaien zapatuan: bazkarian Erresidentzian geratzen ziren zortzi monjak eta Mizpirualdetik igarotako hainbat Ama Nagusi izan ziren. Erresidentziako lagunekin eta udal ordezkariekin (Bergara eta Antzuolako alkateak tartean) bildu ziren eta bazka-lostean hainbat opari jaso zituzten.

BOKAZIO FALTA

Aste honetan bertan monjek euren des-tinu berrietara alde egin dute: Sor Sara Agirre Nagusia bere jaioterriko, Mutri-kuko erresidentziara joan da lanera;

Azkenengo 141 urteetan gure artean izan ondoren, Mizpirualde Erresidentziako Karidadeko Alabek Bergaratik alde egin behar izan dute. Ordenaren zuzendaritzak beste kongregazio batzuetan lan egiteko erreklamatu ditu Erresidentzian ziren zortzi monjak eta aste honetan bertan joan dira. Ez da erreza izango beraiek lagatako hutsunea betetzea.

Argazkian, ezkerretik eskumara, Sor Sara Agirre, Sor Carmen Legarra, Sor Maria Antonia Garcia eta Sor Mirari Galarraga. Mizpirualdeko superiorak izandakoak dira laurak eta zapatuko omenaldi bazkarian elkartu ziren.



Sor Maite Alberdi Bilboko Miseracordia eritexera; Sor Maria Antonia Garcia Burgosera; Sor Josefa Jauregi Ibarra; Sor Maria Jesus Lakidain Villasana de Menara (Burgos); Sor Ines Rodriguez Donostiara; Sor Teresa Silanes Murgueta, azkenik, Sor Ines Urdangarin Segurara. Bokazio falta izan da Bergaratik alde egiteko eta ordenaren beste kongregazioetara lanera joan behar izatearen arrazoi nagusia.

Sor Sara Agirre Nagusiak sei urte eman ditu Bergaran. Bere hitzetan, "ez da gure gustoko erabakia, ezta gure Nagusiaren gustokoa ere, baina horrela gertatu da. Bokaziorik ez dagoenez, ez dago erreborik eta ezin gara etxe daretara iritsi. Horregatik, etxeen funtzio-namendua berrantolatu egin da eta beste zentru batzuetara joateko deia heldu zaigu. Egia da instituzioek gero eta lan gehiago egiten dutela arazo sozialen gainean baina sektore marjina-tuenekin (drogazaleak, HIES gaisoak... etabar) lan egiteko orduan badugu oraindik zer aportatu eta batik bat hor kokatuko da gure lana". Hainbeste urtetan Bergaran lanean izan ondoren monjei beraiei ere ez zaie batere erreza gertatu alde egin behar izatea; "urte as-ko dira Bergaran igarotakoak eta neuri batean bergararrak sentitzen gara. Es-perientzia guztiz aberasgarria izan da eta lagun handiak egin ditugu. Orain, lagun horiek agurtzea mingarria gerta-tzen da. Erresidentziako jendeak gu al-

Arantza Erlojutegia

Barrenkalea 4
943 76 10 04

IBARGYREN PENTSYAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak



San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

ezpeleta Ostalaritzarako ehungintza

Ostalaritza eta egoitzetarako mahai-zapi eta industri-ehumak

San Lorenzo 1, Bergara
Tf. 943 76 28 77/Tf. eta faxa: 943 76 17 08



de egiteagatik pena sentitzen duela esaten digu eta gu ere penaz goaz Bergararik. Dena den, urte ederrak izan dira hemen igarotakoak eta oso pozik gaude Mizpirualden lan egin izanagatik, oso gustora egon gara urte hauetan” diosku Sor Sarak.

HARREMAN ONA

Sor Ines Rodriguez da azken monjetik Bergaran denbora gehien eman duena: 21 urte. Quintana de la Serena (Badajoz) herrikoa jaiotzez, Argelian ere lanean ibilitakoa da eta orain ez zuen uste Bergararik alde egitea tokatuko zitzaien. “Etxe honen aldaketak eta gertutik jarraitu izan ditut etorri nintzenetik eta bertakoa sentitzen nintzen. Bergarak erresidentziarik onenetakoa izatea lortu du eta alde horretatik pozik egon gaitezke. Horrez gain erresidenteekin, familiarrekin eta boluntarioekin oso harreman ona izan dugu eta egia da guztioi kostatzen egin zaigula trasladoraren erabakia onartzea. Dena den, ez dut uste guk lagatuko hutsunea betetzeko inolako arazorik egongo denik. Gainera, lanpostu berriak sortuko dira eta hori ere positiboa da. Azken batean

“Urte asko dira hemen igarotakoak; esperientzia guztiz aberasgarria izan da. Penaz goaz Bergararik”

SOR SARA AGIRRE



“Bergarak erresidentziarik onenetakoa izatea lortu du eta alde horretatik guztiok pozik egon gaitezke”

SOR INES RODRIGUEZ

inportanteena Erresidentziako zaharrak ahalik eta gustoren sentitzea da eta datozenek ere ondo egingo dute euren lana”. Sor Ines Donostiako erresidentzia batera joango da lanera eta Bergarako berriak gertutik jarraituko dituela dio.

HUTSUNEA


Alazne Irazabal Erresidentziako gizarte laguntzailearen ustetan, monjen hutsunea betetzea zaila izango da; “urte askotan egon dira irabaz asmorik gabeko lana egiten eta ezinezkoa da hori eskertzea. Lan ikaragarria egiten zuten eta beste zerbait gehiago ere aporteratzen zuten, zaharrei lasaitasuna eta konfiantza emanez. Erreferente hori galtzean hutsune handia nabaritu dugu”.

Oraindik enpresa bateko langileak izango dira monjen lekuan lanean eta aurrerago oposiziara irteneko dira hainbat lanpostu; “oraindik goiz da zer nolako beharrak ditugun jakiteko. Egunero funtzionamenduari ikusiko dugu hori eta urte bukaeran balorazioa egingo da”. Gaur egun 112 lagun dira Erresidentzian eta bertako langileez gain, boluntarioen lana ere aipagarria da zaharrei laguntza emateko orduan. Jubilatuen elkarteko taldeak, Caritasekoak eta herriko beste hainbat lagun zaharrei konpainia egitera hurbiltzen dira eta Erresidentzian antolatzen diren ekitaldietan ere parte hartzen dute.<

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA



Iturkintza • Berogintza • Bainuak

Laskurain

Barrenkalea 35, BERGARA.
Tf. 943 76 24 89



DEBA
GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telefono Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Ariznoa

gimnasia erritmiko taldea

Irailaren 21ean Gimnasia erritmikoko denboraldia hasiko da. Kirol polit honetan interesatuta dauden 6 urtetik gorako neskek, deitu telefono hauetara:

informazioa jasotzeko:
943 76 32 08 (Margari)
943 76 52 05 (Mertxe)
943 76 13 35 (Helena)

Klaseak:

BERGARA:


martitzen eta eguenetan,

Miguel Altuna berria.


ANTZUOLA:

6-8 urte: martitzen eta eguenetan

8 urtetik gorakoak: eguzten eta eguenetan



Aupa neskek, anima zaitetzte! Zuen zain gaude!



Ikastaroak

Zeramika

Enkuadernazioa

Eskulanak

Irakaslea: Ana Orgaz
Martitzen eta
eguztenteetan
18:00-20:00
Izena ematea: Ardatza.



Tailaketa

Irakaslea: Eusebio Esnaola
Martitzen eta eguztenteetan 18:00-20:00
Izena ematea: Ardatza.

Gantxilloa

Bainikak

Kurutze punta

Irakaslea: Marijose Imaz
Eguztenteetan
15:00-17:00 eta 18:00-20:00
Izena ematea: Igarza.



Bolilloa eta bainikak

Irakaslea: Idoia Ibañez
Eguztenteetan 15:00-17:00 eta 18:00-20:00
Izena ematea: Igarza.

*Ikastaro guztia
Koldo Eleizalde
2-an emango
dira eta urrian
hasiko dira*

*Informazioa:
943 76 35 99
(eguztenteetan
10:00-13:00 eta
16:00-20:00)*

Kirolean eta euskaraz

Nola bizi duzue euskararen gaia zuen kirolean?

Deba arroko Kirola Euskaraz programak entrenatzaile, monitorea, gestore, eta abarrentzako ikastaroak antolatu ditu. Hori dela eta, bailarako hiru kirolarirekin egon gara euskararen gaia eurrak nola bizi izan duten eta nola ikusten duten jakiteko asmoz.



AITOR ELKORO
Pilotaria

1. Guk, eskola barruko kirol ekintzetan erdaraz egiten genuen. Eskolaz kanpo, berriz, Oskarbi kultur eta kirol taldean ibiltzen ginen Elgetan eta beti euskaraz egiten genuen bertan bai gure artean eta baita monitoreekin ere.

2. Profesionaletan denetik dago. Gehienbat pilotarien artean euskaraz egiten dugu baina Gipuzkoakoekin bakarrik. Botillero Aranzeta daukat eta berarekin euskaraz egiten dut baina prepartatzailearekin erdaraz. Gaurko egoeran ez dut aldaketa handirik somatzen.

3. Ba, nire ustez formazioaren bidea inportantea da. Gure garaian bakoitzak bere kontura ikasten zuen eta alde horretatik Kirola Euskaraz-en ikastaroak interesgarriak iruditzen zaizkit, hobeto ikasteko.

FELIX IÑURRATEGI
Mendizalea

1. Gure inguruan orokorrean giro euskalduna zegoen. Herri txikiko giroa izan dut



1. Mutikotan, eskola garaian, kirola egiten zenuenean, nola egiten zen. Euskaraz egiten al zen?

2. Zure oraingo kirol jardueran zein da egoera eta azken urteetan aldaketarik somatu al duzu?

3. Nondik nora ikusten duzu hobekuntzarako bidea eta nola baloratzen dituzu Kirola Euskaraz-ek antolatutako ikastaroak?

"Txikitan, Oskarbi kultur eta kirol taldean, euskaraz egiten genuen beti"
AITOR ELKORO

eta kasu hauetan euskara gehiago erabiltzen da. Batzuetan entrenatzaile batzuk erdaldunak izaten ziren eta baita taldekide batzuk ere, baina orokorrean giroa euskalduna zen.

2. Garbi dago mendiko giroa ez dela txarra, baina oraindik asko hobetu daiteke. Oraindik erdera nagusi da baina euskara ere nahiko erabiltzen da. Askotan espedizioa kideen arabera hitz egiten da. Komunikabideetan ere gehiena erdaraz baina zenbait jende badabil

"Kirol mundua euskalduntzeko, sentsibilizazioa inportantea da, hori da bidea"
F. IÑURRATEGI

euskaraz ere lan bikaina egiten.

3. Nik hobekuntzarako bidea sentsibilizazioaren alde ikusten dut, hori da landu beharrekoa. Zuen egitasmoak bide hori jarraitu behar duela uste dut eta ikastaroek hor joko eman dezaketela iruditzen zait.

JULEN MASACH
Realeko prestatzaile fisikoa

1. Ni euskaldunberria naiz eta ikasketa guztiak erdaraz egiten nituen.

"Realean, Sanseko jokalaria askorekin-eta, harremanak euskaraz dira"
JULEN MASACH

2. Profesionaletar heldu nintzenez somatu nuen euskara hor zegoela eta hitz egiten zela. Realean harreman dezente izaten dira euskaraz; adibidez, Sanseko jokalaria askorekin euskaraz hitz egiten da.

3. Hobekuntzarako bide batzuk ikusten ditut nik: kirol aldizkari espezifiko bat argitaratzea esate baterako, kurtso espezifikoak egitea... Alde horretatik, Kirola Euskaraz programak daukan egitasmoa ona dela iruditzen zait.<


Goitibehera lasterketa Angiozarren

Euskal Herriko txapelketarako baliagarria izango da

Euskal Herriko txapelketako goitibehera lasterketa jokatu da bihar, zapatua, 16:00etan Angiozarren. Dagoeneko jokatu dira txapelketako hamar proba eta bi baino ez dira geratzen liga amaitzeko, Angiozarrekoa eta irailaren 26an Iurretan jokatu beharrekoa. Partaideek, Asentziotik Angiozarko eskolara bitartean 3.100 metro inguruko ibilbidea bete beharko dute zapatuan. Guztira, 20 bat bikote izango dira lehian. Arratsaldeko 4retan emango zaio hasiera probari eta partaideek erlojupeko bi jaitsiera egin beharko dituzte. Aurretik entrenamendu saio bat egiteko aukera izango dute. Arratsaldeko 7etarako proba amaitzea espero da.

BIKOTE BERGARARRA

Aitor Billate (Galdakao) eta Andoni Anabitarte (Añorga) dira sailkapeneko lehendabiziko bi postuetan. Beraiekin batera, Carlos Gutierrez eta Andoni Olabarria bergararrek osatutako bikotea izango da irteeran. Andoni eta Carlos ez daude oso pozik orain arte egindako txapelketarekin. Ezin izan dira aurreneko postuetan sartu aurretik jokaturako probetan eta, ondorioz, sailkapeneko erdialdean dira. Hala ere, Bergarako jarraitzaileen



Lasterketa ikusgarria izango da eta goitibeherak 75-95 kilometro orduko bitarteko abiadurak hartuko dituzte.

aurrean, proba bikaina egiten saiatuko dira bihar. Euskal Herriko txapelketaren lehendabiziko edizioan 6. postuan sailkatu ziren eta azkarragoan laugarren izan ginen. Andoni Olabarriaren hitzetan, "gertatzen da partaide askok euren goitibeherak asko hobetu dituztela eta guk, aldiz, ez dugula aldaketarik egin. Hasierako goitibeherarekin jarraitzen dugu eta horrek indarra kendu digu". Goitibeherak 75-95 kilometro orduko bitarteko abiadurak hartzen dituzte horrelako probetan eta biharkoa ere proba ikusgarria gerta daiteke. Ando-

niren iritziz; "ibilbidea asko gustatzen zait, eta Arrasaten, Udalan, egiten den proba baino azkarragoa izan daiteke Angiozarrekoa. Zapatu goizean joango gara entrenatzera eta ea aurrean sailkatzerik izaten dugun". Ohizkoa dutenez, Carlos gidari eta Andoni bultzatzaile lanetan arituko da.

PROBA IKUSGARRIA

Angiozarko Jai Batzordeak lehen aldiz antolatu du goitibehera lasterketa. Txapelketa Euskal Herriko zazpi lurraldeak elkartu nahian sortu zen orain dela hiru urte eta angiozartarrek zirkui-

tuko proba bat ekarri nahi izan dute aurretik. Mila Elortza Jai Batzordeko kidearen hitzetan, "izan diren beste probetan ikusi da goitibeherak jarraitzaile asko dituztela eta ea bihar ere jendea etortzera animatzen den. Badakigu zapatu goizean feria eta bestelako ekitaldiak direla, baina aukera paregabea izan daiteke horrelako proba ikusgarri bat gertutik jarraitzeko". Probak milioi erdi pezeta inguruko aurrekontua dauka eta sailkapeneko lehen bostentzat sariak egongo dira. Partaide guztiek 5.000 pezetako dietak eskuratuko dute.<

PILI GISASOLA

Santiveri 

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

Zurradero 2 behea.
☎ 943 76 58 83

ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

ARREGI

**Eraikuntza
materialak**

Bildegia Tellerian, Labegaraletan.
Tf. 943 76 27 93

Kros eta txirrindulari probak zapatuan

Zapatu arratsaldean

San Martin txirrindulari lasterketa eta San Martin krosa jokatu dira Bergaran. 23 urtez azpiko afizionatuen txirrindulari lasterketari arratsaldeko 4retan emango zaio hasiera Ibargarai kalean. Txirrindulariek 126 kilometroko ibilbidea bete beharko dute, Udana, Deskaraga eta Asentzioko mendateak tartean. Zazpirak aldera amaituko da proba Ibargarain bertan. San Martinetako lasterketaren 34. edizioa Lehendakari txapelketarako baliogarria izango da. Faberitoen artean Ion Unamuno (Iberdrola) bergararra izango du. Guztira, 150 txirrindulari inguruk hartuko dute parte. Lokatza taldeak dei egiten die antolaketan laguntzeko prest direnei zapatuan karrera hasi baino lehenago Ibargarai ingurura joateko.



Korrikalariak herriko kaleetatik arituko dira bihar.

KROSA

Bestalde, San Martin krosaren 10. edizioa jokatu da bihar 19:30etan, plazatik irtenda. 18 urtetik gorakoek 9.120 metroko ibilbidea egin beharko dute herriko kaleetatik; 15-17 urte bitartekoentzat 4.560 metroko

ibilbidea prestatu da eta gaztetxoek 1.400 egin beharko dituzte. Zaleak taldeak bihar partaidetza handia lortzeko itxaropena dauka. Izen-ematea 19:00etan egin beharko da San Martin plazan bertan. Partaide guztientzat opariak izango dira.

FERNANDO MARKINA/ Arku tiratzailea

"Bergaran talde bat sortzea ondo legoke"

Fernando Markinak 14 urtetik gorakoei zuzendutako arku tiraketa ikastaroa emango du irailaren 25etik aurrera (izen-ematea Kirol Zerbitzuan). Markinak 7 urte daramatza arkuarekin eta Euskadiko Txapelketan hirugarrena izan zen aurten.

G. Arku tiratzaile asko dago Bergaran?

E. Jende asko dago arku daukana, 30 lagun inguru behar da. Talde bat sortzea interesgarria litzateke arkuarekin aritzeko lokal egoki bat lortu ahal izateko. Gainera, federatuta egoteko modu bakarra ikastaroa egin eta talde baten barruan egotea da.

G. Zela hasi zinen arkuarekin?

E. Ikastaro bat egin nuen eta gustatu egin zitzaidan. Tiroa beti gustatu izan zait baina arku da gehien betetzen didana. Arku erosi eta lau bat urtez nire kontura ibili nintzen. Gero Legazpiko Luma taldekoekin elkartu nintzen. Asantean zazpi bat ordutan aritzen naiz, San Martzialen edo Legazpiko lokalean normalean.

G. Zer erakutsiko da ikastaroan?

E. Arku zela erabiltzen den, fisiko aldetik zer nolako aldaketak egin behar diren

(tiratzea ez da jendeak uste bezain erreza) eta praktika egingo dugu. Dianan sartzea ez da erreza hasieran baina ikastaroa amaitzen denerako gehienak 18 m.tik 50 cm-ko dianan sartzeko gauza izango dira.

G. Ezaugarri berezirik behar da?

E. Esfortzu handirik ez da behar, indar piskat, pultso ona eta kontzentrazioa edukitzea

nahikoa da eta bizkarreko muskuloak lantzeko eta erlajatzeko kirol egokia da gainera.



Piraguismoa

Kirol Zerbitzuak antolatuta, 14 urtetik gorakoei zuzendutako eskimotaje eta ur bizietako hastapeneko ikastaroak izango dira, Bergarako igerilekuan eta Bidasoa ibaian. Argibideak 943 77 91 67 zenbakian.

Futbol karteldegia

Bergarako futbol talde nagusiak Aurrera Vitoria taldearen aurka jokatu du bihar, zapatua, 17:30etan Agorrosin. Bestalde, 2. mailako jubenil taldeak Ilin txaren kontra jokatu du domekan 10:00etan, eta nesken taldeak Elgoibarren aurka domekan 17:00etan Ipintzan

Kanpoko igerilekuak itxi

Astelehenera aurrera kanpoko igerilekuak itxi eta barrukoak bakarrik izango dira zabalik, neguko denboraldiari hasiera emanez. Goizeko 7:00etatik 21:00etara izango dira zabalik.

Monitoreen ikastaroa

Kirola euskaraz programaren barruan, kirol monitoreei zuzendutako ikastaroa izango da Kultur Etxean, irailaren 23tik 25era. Izen-ematea astelehenera arte zabalik Kirol Zerbitzuan.

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Masterreka. Amueblatua. 941 24 39 02.

Lizarratik 5 km.ra pisua salgai. 943 76 23 12.

Etxea eta lursaila salgai Olan. 943 76 06 92.

Zubiaurre. 943 76 11 13.

Bidekurutzeta. 250 m²ko ganbara. 943 76 21 80.

Zubiaurre. 943 76 49 30.

Pisua salgai Huelvan, garajeduna. 943 76 40 25.

Madura. 943 76 30 20.

ERRENTAN EMATEKO

Bi oheko logela. Aretxabaletan. 943 77 12 54.

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

Pisu amueblatua Antzuolan. 943 76 21 06.

Torremolinos. Hondartza ondoan. 943 76 33 58.

ERRENTAN HARTZEKO

Pisua hartuko nuke alokairuan Bergaran. 689 991 070

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK
Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK
Agurrak
Kontaktua
Deiak
Bestelakoak

ETXE KONPARTITUAK

Bilbon (Arangoitin) pisua osatzeko jendea behar da irailetik aurrera. 943 76 30 93 (Andoni).

Bilbon pisua konpartitzeko laguna behar da. 943 76 03 21.

Neska irakasle frantses batek gazte jendearekin pisua konpartituko luke Bergaran. 943 76 46 54.

Bilbo. Lagun bat edo bi behar dira. 943 76 28 17 / 76 12 14.

Bilbo (S. Inazio). Bi lagun behar dira. 943 77 13 77 / 945 44 50 53.

2. GARAJEAK

SALDU

Zubiaurre. 943 76 08 89.

Ibargarai. 943 76 00 93.

B. Laskurain. 943 76 18 85.

Ibargarai. 943 76 44 25.

Espoloia. Garajea salgai edo alokairuan. 943 76 42 86.

Martzial Agirren garaje bikoitza. 943 76 33 88.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokatzen da Ibargarain. 943 76 33 76.

3. LOKALAK

SALDU

Zubiaurren. 100 m². 13,5 milioi. 943 76 11 13.

ERRENTAN EMATEKO

Ibargarain, bulego lanetarako prestatuta. 607 34 46 58.

Matxiategi. 943 76 22 09.

Zubietan 136 m². 943 76 08 18.

Lokala Martokon, prezio onean. 943 76 11 13.

4. LANA

ESKAINTZAK

Etzeko lanak edo hau-

rrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Aritz)

Mutila lanerako gertu. 943 76 04 40.

Neskak, goizez, haurren zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Pertsona nagusiak zaintzen ditut gauze. 610 01 06 19

Emakume batek zaharrrak zaindu edo etxeko garbituko lituzke. 600 600 531.

Emakumeak etxeko lanak edo atariak garbitu. Deitu 619 52 98 04 telefonora.

Emakume esperientziadunak dendan lan egiteko luke. 943 76 07 69

Lanak ordenadorez pasatzen ditut. 943 76 10 94 (arratsaldez).

Neska edozein lanetarako gertu, arratsaldez. Deitu 943 76 00 24 telefonora.

Klinika laguntzaileak gaisoak edo zaharrek zainduko lituzke. 609 77 01 33 (Aisís).

Umeak zainduko nituzke arratsaldez. 943 76 34 48 (Mayra)

INGELES

Klaseen hasiera irailaren 27an

1999-2000 ikasturtea

Klaseak goizez, eguerdiz eta arratsaldez


Haurrak, gazteak eta helduak

Azterketa ofizialeterako prestakuntza

Enpresak: ingeles teknikoak eta komertzialak

Ordu-tegi bereziak: dendariendako, erreleboan lan egiten dutenendako eta etxekoandrendako

ESPOLON



School of English

CAMBRIDGE UNIBERTSITATEKO ESAMINETARAKO DEBA-DURANGALDEA ES438 KOMITEKO KIDE

INFORMAZIOA:

Ibargarai 31, barruko plaza.
Tf. eta faxa 943 76 03 53.
Astelehenetik eguakitzera 10:00-12:30.

EDEL TAPIZDENDA

Ettxerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltxak, edredoiak, etab.


Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

POL-POL

Taberna

☎ 943 76 07 78



ESKAERAK

Neska behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. 943 76 31 86.

Emakumea behar haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. 943 76 08 97.

30 urtetik gorako emakumea behar da pertsona edadetua zaintzeko. 629 26 39 45.

Neska behar da etxeko lanetarako. 943 76 31 11.

Neska gaztea behar da haurrak zaintzeko arratsaldez. 943 76 70 33.

Bi haur zaindu eta etxeko lanetarako neska behar. 943 76 15 61 (gausez).

5. IRAKASKUNTZA

ESKAINTZAK

Ingeles filologian lizentziatuak klaseak eman. 943 76 30 28 (Ana).

Ingeles klaseak. Esperientzia. 943 76 51 23.

Solfeo eta piano klaseak. 943 76 72 69.

OHO eta DBH klaseak. 943 76 26 27 (Ainhoa).

OHO. 943 76 37 94.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Renault Clio Williams (SS-AP). 945 24 11 25

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Lancia Delta. 943 76 51 01.

Renault 19 TXE 1.7. Aire egokitua. 250.000 pezeta. 943 76 19 56.

Peugeot 205. Prezio ona 943 76 36 74.

Honda CBR 600 F motorra. 630 56 55 06.

Yamaha 600 Diversion motorra. 943 76 08 83.

Ossa phantom 250 kro-seko motorra. 40.000 pezeta. 943 73 18 72.

Ford Sierra 2.3 diesela (SS-U). 943 76 40 54.

Kawasaki GPZ 400 motoa. 943 73 18 72 /73 12 82.

Yamaha Jog Scooter motorra (90 cc.) salgai 943 73 18 72/73 12 82.

Citroen Saxo 1.1i. Bi urte. 943 76 12 66 (Xabi).

Chrysler kotxea salgai. 943 76 42 76.

Peugeot 405 Mi 16. Aire egokitua eta narruzko tapizeria. 943 76 03 01.

7. ANIMALIAK

SALDU

Artzain aleman txakurkumeak. Pedigreedu-nak. 696 05 73 46.

8. DENETARIK

SALDU

Karabina salgai egoera onean. 943 76 38 87.

Fotokopidora, faxa eta lanerako mahaia. 607 34 46 58.

Errepideko Zeus bizikleta salgai. 943 76 49 88.

Ume-kotxe estalkiduna. 943 76 06 89.

Karro denda. Ondo ekipatuta. 943 76 42 86.

Minolta argazki kamera, flaxa eta Takumar objektiboa. 943 79 06 15.

Kanpinerako "Iglou" hozkailua. 943 76 41 21.

Bi ohe, idazmahai, altxariak eta apalak. Harritz egurra. 943 76 43 37.

Merida mendi bizikleta, berri-berria. Aluminiozkoa. 943 76 05 88.

Kitarra elektrikoa. 943 76 44 27(Unai).

Idazmakina elektronikoa. 943 76 42 76.

Play station bat salgai: mandoa, memory card-a, lau joku eta pistola bat. 943 76 52 16.

GALDU

Erlojua galdu dut, atzealdean 1967-VI-17 eta 1992-VI-17 fetxak dituen. 943 76 27 17.

Urrezko pultsera galdu dut Matxiategi eta Bideberri tartean. sarituko da. 943 76 36 03.

9. HARREMANAK

KONTAKTUAK

41 urteko gizon batek emakume bat ezagutu nahi luke. 943 76 40 03.

BESTELAKOAK

Aita bazara edo izateko bazara eta haurra gehien moduan ez baduzu hezi nahi, deitu. 943 76 65 12 (Emilen).



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

KARATE MONITOREA
Bilbo. 21110/1

DELINEATZAILEA
Bilbo. 23228/4

PATINAJE MONITOREA
Ibaizabal. 21766/1

INJINERU TEKNIKO MEKANIKOA
Donostia. 23262/1

DENDARIA
Bilbo. 21923/6

KOMERTZIALAK, 8
Bilbo. 23272/1

MAKETATZAILE/DISEINATZAILEAK, 2
Arabar lautada. 22755/2

TELEFONIAKO TEKNIKOAK
Iruña. 23280/1

MEKANIKARIA
Bilbo. 22906/2

GIZA BALIABIDEETAKO TEKNIKARIA
Bilbo. 23290/2

MANTENIMENDU ELEKTRO-MEKANIKORAKO TEKNIKOAK
Durangaldea. 22990/5

MEATEGI ETA HERRI-LANETAKO INJINERU TEKNIKOAK, 2
Ibai eskuinaldea. 23096/5

ADIMEN URRIKOAK ZAINTEKO MONITOREA
Donostia. 23313/3

IGELTSEROAK, 3
Bilbo. 23181/3

SUKALDARI LAGUNTZAILEA
Durangaldea. 23245/2

WINDOWS NT SAREAN OPERADOREA
Bilbo. 23230/3

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

Langai Udaltxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00era. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Elkarte bateko

administrarritza lanak egiteko

laguna behar da.

Egunero prest izatea beharrezkoa

943 76 02 73 (12:00-13:00, Juan)

943 76 34 22 (Natalia)

Ganbara
TABERNA

Heure erara ibiltzeko!

Irala z/g. Tf. 943 76 55 75

Furgoneta eta negozioa salgai

656 722 453

HITZALDIA

Produktuen kontserbazioa



Hizlaria:

Susana Aiestui, Jakion enpresakoa


Eguna:

irailaren 21a, martitzena.

Ordua:

19:00tan.

Kartzela zaharrean.



Bergarako Orfeoia eta Bilboko Orkestra Sinfonikoak zapatuan Udal Pilotalekuan eskainiko duten emaldiarekin, amaiera emango zaio Orfeoia soreraren 75. urteurrena ospatzeko, urtebetez antolatu den egitarau zabal, arrakastatsu eta bikainari. Iaz, irailaren 18an aurkeztu ziren Bergarako Udaletxean Orfeoia soreraren 75. urteurrenako ekitaldiak. Urtebete geroago, zapatu honetan, irailak 18, amaituko dira ospakizunak.

Amaiera ekitaldirako emanaldi berezia prestatu nahi izan dute Orfeoia eta Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin batera, garai batean San Pedron egiten ziren kontzertu sinfoniko-koralei eutsi nahi izan diete oraingoan. Okasiorako, gainera, egitarau berezia prestatu dute: Miguel Gonzalez Bastidaren "Stabat Mater", 1976. urtean Orfeoia eta Bilboko Orkestra Sinfoniko-

Bergarako Orfeoia eta Bilboko Orkestra Sinfonikoa berriro elkarrekin

Miguel Gonzalez Bastidaren "Stabat Mater" berriz estreinatuko da zapatuan pilotalekuan

ak San Pedron estreinatu zutena eta hurrengo inoiz eskaini ez dena, Jesus Egiguren durangarrak Orfeoia sorerentzat propio idatzitako "Zerua goian ta lurra bean" lanaren estreinaldia eta Juan Crisostomo Arriagaren bi obra txiki: "Obertura, opus 1" eta "Pastorala". Zuzendari lanetan Juan Jose Mena Euskadiko Orkestra Sinfonikoko zuzendaria

arrituko da. Orfeoia soreraren zuzendaria, berriz, David Azurza izango da.

Arriaga bilbotarraren piezekin emango zaio hasiera kontzertuari. Bilboko Orkestra Sinfonikoak, bakarka eskainiko ditu. Arriagak gazte gaztetan idatzi zituen: lehenengoa 12 urte zituela eta bigarrena Parisen, hil baino urte batzuk lehenago (20 urte zituela hil zen).

Ondoren, Orkestra eta Bergarako Orfeoia Jesus Egiguren "Zerua goian ta lurra bean" (Gabriel Arestiren hitzekin) kantata eskainiko dute. Durangarrak orain dela 15 urte idatzi zituen lan honetako lehen zirriborroak eta, zati batzuk aldatu ostean, azken urte honetan bukatu berri da Bergarako Orfeoia sorerentzat. Lan sinfoniko-korala da solistendako ere idatzia eta zapatuan estreinatuko da. 21 minutuko iraupena du. Egigurenek hainbat sari jasoak ditu bere konposizioengatik. Gaur egun, Durangoko Bartolome Ertzilla Musika Eskolako irakaslea da.



Bergarako Orfeoia kontzertu handi batekin emango die amaiera zapatuan, 75. urteurreko ospakizunei.

SUBIJAI

Gazteentzako moda

Irizar 1 ☎ 943 76 42 41

Gallastegi

Jostundegia

Mahozko lanerako jantziak

San Pedro ☎ 943 76 10 85

GURIDI altzariak

Era guztietako altzariak

Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

ileapaindegia

eder gela

— **disdira** —

Masterreka 7 • Tf. 943 76 00 55

140 AHOTS "STABAT MATER"-ERAKO

Ondoren, Miguel Gonzalez Bastidaren "Stabat Mater" berrestreinatuko da. 50 minutuko iraupena du eta Bergarako Orfeoiko ohiko 80 ahotsei, urteetan Orfeoiarekin lan egin duten beste abesbatz batzuetako ahotsak gehituko zaizkie, 140 laguneko koroa osatuz. Hain zuzen ere, aurten 20 urte bete dituen Bergarako Arizeta, Soraluzeko Ezozkiko Ama, Arrasateko Goikobalu (10 urte egin berri ditu), Oñatiko Ganbara, Zumarragako Goi Argi eta Iruñeko Orfeon Pamplones abesbatzetako ordezkariak indartuko dute Orfeoia "Stabat Mater" kantatzeko. Maria Jesus Ugalde sopranoa, Yolanda Sagarzazu kontraltoa, Peio Ormazabal tenorea eta Jagoba Fadrique baritonoa arituko dira bakarlari.

Miguel Gonzalez Basatidak 1975. urtean idatzi zuen "Stabat Mater", tartean une txarrak pasatzen ari zela, bere emaztea hilzorian baitzegoen. "Stabat Mater" obra neoklasiko bezala definitu du egileak berak. 12 zati ditu eta amaierakoa oso indartsua da.

KONTZERTU HANDIEN TRADIZIOA BERRESKURATU

Larunbateko amaiera kontzertu honekin Bergarako Orfeoia berreskuratu nahi izan du 1948. urtetik 1951. urtera bitartean Udal Pilotalekuan egiten ziren kontzertuak. 1952.etik aurrera, ostera, San Pedro parrokian egin ziren Bergarako Eliz Kontzertu famatuak (Odon Alonso bezalako zuzendarien aginduetara), azkenengoa 1988an egin zen. Bilboko Orkestra Sinfonikoa, gainera, Orfeoia ohiko laguna izan da kontzertu horietan guztietan eta, Bergarako Orfeoia bezala, 75 urte bete berri ditu.

Larunbateko kontzerturako sarrerak Kultur Etxean, Ariznoan eta Lazkanon salduko dira 2.000 pezetan (1.500 PTA langabetu eta gazteentzat). Bere 200. urteurrenean, Mariaren Lagundiari eskainiko dio kontzertua Orfeoia.<



Mariaren Lagundia Ikastolako Abesbatza, Iñigo Alberdi zuzendariarekin batera.

KIRU

200 urte eta hamaika kantu

Mariaren Lagundiko koruaren diskoa kalean

Mariaren Lagundia Ikastolako Abesbatzak kaleratu berri duen disko konpaktoa aurkeztu zuten martitzenean Iñigo Alberdi koruko zuzendariak, Juan Rekarte CDa argitaratu duen aus-Art Records disketxeko zuzendariak, Nagore Agirre diskoaren azala diseinatu duen eskolako irakasleak eta Gotzon Iparragire Mariaren Lagundiko DBHko koordinatzaileak.

"200 urte, hamaika kantu" da diskoaren izenburua eta 18 pieza bildu dira bertan. Horietatik 11 Mariaren Lagundiko Abesbatzak kantatutakoak dira. Beste zazpitan, Kanta-Cantemus koroak, Txepetxa Abesbatzak, Bergarako Orkestra Sinfonikoko soka taldeak, Bergarako Udal Musika Bandak eta Oscar Candendo eta Aitor Oleak hartu dute parte.

600 ale argitaratu dituzte eta zapatu honetan jarriko dira salgai: goizean, San Martin plazan eta arratsaldean, Udal Pilotalekuko sarreran, Orfeoia emanaldia dela eta. Horretaz gain, Etxepare-Bilintx eta Idatzi liburudendatan eta Larrañaga gozotegian ere salduko dira, 1.500 pezetan. Irabaziak FISC gobernuz kanpoko erakundearentzat eta Raul Luque bergarar gaztearentzat izango dira.

Mariaren Lagundiaren 200. urteurrena ospatzeko antolatutako ekimenetako bat da diskoa. Bertan, Euskal Herriko hainbat musika konpositore klasikoren pieza sinfoniko-koralak jaso dituzte. Besteak beste Urteaga, Sarasola Azkarate-Askasua, Erauzkin edota Gonzalez Bastidarenak. Horretaz gain, euskaldunak ez diren beste musikagile batzuenak ere bai.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55



BOKATEGIA

Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerre.
Tf. 943 76 71 19

San Martinetan 18 urte bete die Baster jantxidenda zabaldu zanetik eta joan zen eguakitzean Irala kaleko lokal berria inauguratu zan. Bergara eta Urretxuko dendez gain, Urretxun be Jai-Alai jatetxeko jabia da.

Mariaje Ibañez

Lokal berriak daukan gauzarik onena?

Bezeroenganako giro abegitsua.

Zer behar da dendan lan egiteko?

Gustatzea. Nik 20 urtekin argi neukan denda jarriko nuela.

Urteko zein sasotian saltzen duzue gehien?

Maiatzean eta urrian.

Zu zeu pinpirina zara?

Oso!

Ispilu aurrean denbora asko egoten zara?

Ez daukat denborarik...

Zenbatero joaten zara ileapaindegira?

Astean behin-edo.

Gustoko jantzi bat?

Gabeko jantziak.

Eta zer ez ziñuke sekula jantziko?

Mallak.

Kolore bat?

Beltza.

Gonak edo prakak?

Gonak.

Zapata takoidunak ala takoi gabeak?

Segun zein momentuan.

Makilatuta edo makilatu gabe?

Oso makilatuta.

Diseinatzaile bat?

Christian Lacroix.

Top model bat?

Nieves Alvarez.

Eta gizonezkoetan?

Mark Vanderloo adibidez.

Modako aldizkari bat?

Vogue.

Puntuatu bergararron janzkera.

Otik 10era, 7.

Zer eroango da aurtengo udazkenean?

Punto asko.

Perfume bat?

Rive gauche, Yves Saint Laurent-ena.

Jatetxea izanda, sukaldari ona izango zara.

Bai.

Zure espezialitatea?

Marisko paella.

Dietarik egiten duzu?

Ez baina egin biharko neuke.

Janari eta edari bat?

Mariskoa eta errioxar ardoa.

Animalia bat?

Txakurra. Lau dauzkat.

Telefono mugikorrik erabiltzen dozu?

Bai.

Usain bat?

Belar ebagi berrixana.

Gizon batengan zertan fijatzen zara lehenbizi?

Begiradan.

San Martinetako ekitaldirik gustukoena?

Egoten den giroa, herriko jai onenak die.



BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOLDOAK

Larrañaga

San Pedro, 9 - Teléfono. 761051

R.S.I. 209374 - 55

BERGARA

Gozogintzan aintzindari.

FRANTSES IRAKASKUNTZA

1999-2000
ikasturtea

Izena emateko epea:
irailaren 30era arte.

Informazio gehiago:
Mizpildi 3, 1. ezkerria. BERGARA.
Tf. 943 76 30 55
Ordutegia: 10.00-12.00 eta 17.00-19.00

Kizkur

Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32



Herri eskolako neskak, 1974

Dagoeneko hasi da milurteko azken ikasurte eta aste honetatik aurrera ohiko martxan murgilduta daude neska-mutikoak.

Gelako argazki ofiziala ateratzeko une egokia izan ohi da ikasturte hasiera eta kurtsoa hasi berria dugunez, orain dela 25 urte eskola publikoetan OHOk 3. mailan zebilen neska taldea ekarri dugu Erretratu zaharrera. Hona hemen euren izenak, ezkerretik hasita:

Goian: Adita Alberdi, Cristina Santos, Beñoña Cantero, Mariasun Zangitu, Maritxu Ugalde (irakaslea), Resu Millan, Ana Isabel Prieto,

Ana Aguila, Mari Karmen Maniega eta Mari Mar

Erdiko ilaran: Gloria Vicente, Arrate Martinez, Rebeca Reglero, Maria Enma Acebo, Alicia Etxabe, Rosa Castelo, Elisa Escobar, Ana Rodriguez, Mari Asun Badiola, Eli Gabilondo eta Merche Almeida.

Behoko ilaran: Loli Conde, Hervas, Arantza Juaristi, Nerea Dominguez, Florita, Maria Jose Larrion, Amaia Vicente, Ana Agirre, Nekane, Karmen Zafra eta Maria Jesus Prieto.

Argazkia: Karmen Zafra

DEBAGUNEK –Deba Garaiko Euskara Elkartearen elkargoa– urtero argitaratzen duen egutegirako argazkiak behar ditugu

Antzinako lanbideen (errementaritz, burdinola, ehungintza, karegintza, larrugintza...) argazki zahar edo berriak baldin badaukazu, BERRIGARARA edo JARDUNERA ekartzea eskertuko genizuke. **Argazki denak itzuli egingo dizkizugu.**

Berrigara: Errotalde jauregia. 943 76 03 97. Jardun: Kartzela zaharra. 943 76 08 19

iRUDI
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai 2
943 6 51 65



umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!

San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA

INDUSTRI HORNIDURAK

Tf. 943 71 24 25

99/00 oraina euskaraz da



EUSKARA IKASTAROAK

Maila guztiak

EGA eta alfabetatze
EGako atari froga **bertan**

Klaseak goiz eta arratsaldez
Errelebotara moldatzen gara

Izena emateko azken eguna:
irailaren 29a



Informazioa eta
matrikula:
AKULU EUSKALTEGIA
Masterreka 13.
Tf: 943 76 05 18




eman izena aek-n

DESA/CRISTAL

IBILGAILUEN KRISTALDEGIA **Tailer berria BERGARAN**

-  Auto, furgoi eta kamioiendako kristalen muntaia
-  Solar-check laminaren instalatzaile baimendua



Santalaitz 6, 5. pabilioia
Tf. 943 76 36 09.
Faxa: 943 76 73 45



JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakarra

Salneurrik onenak!

Zatoz,
manparen,
osagarrien eta
griferien
eskaintzak
ezagutzera.
Orduan ere
harrিতa
geratuko zara!



Toaila-euskarria:
131.803 PTA

Zutikako apalategia:
49.161 PTA

80 cm-ko altzaria, enzimera, ispilua eta
pinu bukaeradun aplikeak

73.138 PTA

Altzaria eta
goritasun
argidun
ispilua,
70 eta 80
cm-koak



70/36.803 PTA
80/38.951 PTA




60/20.879 PTA



70/28.479 PTA



90/33.590 PTA



Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeko

San Lorentzo Industri Poligonoa, Amillaga 10, behea. BERGARA.
Telefona: 943 76 03 30. Faxe: 943 76 02 91.